# PREGINTON 100®

**Zer da medikamentu hau eta zertarako erabiltzen da?**



Aurrez kargatutako xiringa bat da, larruazalpean injektatzen dena; dosi osoak 0,5 ml ditu, eta 100 µg α-2b interferon du, organismoko defentsei C hepatitis kronikoaren aurka jarduten laguntzen diena.

Tratamenduak sei hilabete eta urtebete bitartean irauten du.

Normalean, ERRIBABIRINA izeneko konprimatu batzuekin konbinatuta erabiltzen da, eta, kasuaren arabera, baita telaprebirrarekin ere.

**Nola hartu behar da medikazioa?**

Medikazioa astean behin hartu behar da; beti egun berean eta ordu bertsuan —hobe da gauez hartzea—.

PEGINTRONen kaxa bakoitzean hauek aurkituko dituzu: luma bat, orratz bat estalki babeslearekin eta garbitzeko bi paper-zapi. Ziztatzeko tokirik egokiena abdomeneko (saihestu zilborra eta gerrialdea) edo izterretako azalaren azpian dago.

Atera xiringa hozkailutik ziztatu baino 15 minutu lehenago, giro-tenperatura har dezan.



**Zer egin dosi bat hartzea ahazten bazaizu?**

- **Bi egun baino gutxiago** pasatu badira medikamentua hartu behar zenuenetik, ahalik eta lasterrena hartu behar duzu, eta, ondoren, hasieran finkatutako asteko egunean jarraitu behar duzu.
- **3-5 egun** pasatu badira medikamentua hartu behar zenuenetik, ahalik eta lasterrena hartu behar duzu, eta, ondoren, hasieran finkatutako eguna baino 4 egun beranduago hartzen jarraitu behar duzu.
- **6 egun** pasatu badira medikamentua hartu behar zenuenetik, aste horretan **ez** duzu dosia hartu behar, eta hasieran finkatutako pautari jarraitu behar diozu. Jakinarazi zure mediku edo farmazialariari.

Ez da sekula dosia bikoiztu behar aurreko hartualdia ahaztu egin denean**.**

**Kontrako zer ondorio eragin ditzake medikamentu hone**

Medikamentua hartu ondoren arnasa hartzeko zailtasunak badituzu, eztarria handitzen bazaizu, zorabioak sentitzen badituzu, kordea galtzen baduzu edo azalean orbanak ateratzen bazaizkizu, joan berehala medikuarengana.

***¿Qué es este medicamento y para qué utiliza?***

Es una jeringa precargada que se inyecta bajo la piel (subcutánea), la dosis completa son 0,5 ml, y contiene 100 µg de interferon α-2b, una sustancia que ayuda a las defensas del organismo a luchar contra la hepatitis C crónica.

La duración del tratamiento suele durar de seis meses a un año.

Normalmente se utiliza en combinación con unos comprimidos que se denominan RIBAVIRINA, y según el caso también junto con telaprevir.

***¿Cómo debe administrarse la medicación?***

Tendrá que administrarse la medicación **una vez por semana**, siempre el mismo día y aproximadamente a la misma hora, preferiblemente por la noche.

La primera vez normalmente se la administrará bajo control médico, después puede hacerlo usted mismo.
En cada envase de PEGINTRON encontrará una pluma, una aguja con capuchón protector y dos toallitas limpiadoras. Las zonas más adecuadas son bajo la piel del abdomen (evitando el ombligo y la cintura) o de los los.

Tenga la jeringa fuera de la nevera 15 minutos antes de la administración para que alcance la temperatura ambiente.

***¿Qué debe hacer si se le olvida una dosis?***

- Si han pasado **menos de dos días** desde que tocaba administrarse, debe hacerlo cuanto antes continuar el día de la semana que tenía establec desde el principio.
- Si han pasado **entre 3 y 5 días** desde el día que le toca administrarse, debe hacerlo cuanto antes y continuar 4 d después del día inicialmente programado.
- Si han pasado **6 días** desde el día que le toca administrarse, **no** se administrará la dosis esa semana seguirá la pauta habitual. Coméntelo a su médico farmacéutico.

Nunca debe duplicar una dosis por olvido de la administrac anterior.

***¿Qué efectos adversos puede producir este medicament***

Si tras la administración siente dificultad respiratoria, inflamación en la garganta, mareos, desmayos o ronchas en la piel, acuda inmediatamente al médico.

- Kontrako ondorio larriak gerta litezke: depresioa, nahasmena, nork bere buruari kalte egiteko nahia, loaren eta kontzentrazioaren asalduak, sudurreko odoljarioak, odola gernuan eta gorotzetan, arnasa hartzeko zailtasunak, sukarra, hotzikarak, ikusteko eta entzuteko zailtasunak. Tratamendua hartzen ari zarenean halako arazoren bat sentitzen baduzu, medikuari jakinarazi behar diozu.

- Maizago azaltzen dira kontrako beste ondorio batzuk, larritasun txikiagokoak, ERRIBABIRINA-konprimatuak hartzen badira: **gripe-sintomak** (horretarako, medikuak parazetamola duen medikamenturen bat emango dizu, hala nola Termalgin®, Efferalgan®…); beherakoa; goragalea; **goserik eza**; ziztatutako tokia gorritzea eta handitzea; ilea erortzea (egoera itzulgarria); azkura azalean; **insomnioa**; nekea.

**Nola kontserbatu medikamentua?**

Eduki ezazu hozkailuan (2-8 °C). Ez da izoztu behar.

**Kontuan izan beharrekoak:**

Oso garrantzitsua da PEGINTRON hartzen hasi aurretik medikuari esatea zer gaixotasun dituzun edo izan dituzun, bai eta zer botika hartzen duzun ere.
Medikuak programatutako azterketa guztietara joan behar duzu, eta medikuak egokitzat jotzen dituen analisi guztiak egin behar dituzu, tratamendua emaitza onak ematen ari den eta PEGINTRON edo ERRIBABIRINAREN dosia aldatu behar ote den edo ez ikusteko. Tratamendua medikuak agindu bezala eta hark agindutako denboran bete behar duzu. Emaitzarik onenak lortzeko modu bakarra da.
Ez gelditu haurdun eta ez eman bularra tratamendua hasten denetik medikuak adierazi arte.

- Podrían producirse reacciones advers serias como: depresión, confusión, deseos autolesionarse, trastornos en el sueño y la concentración, hemorragias de nari sangre en orina y heces, dificult respiratoria, fiebre, escalofríc dificultades en la visión y en el oído. sintiese alguno de estos problemas durante tratamiento debe comunicárselo a su médico.

- Otras reacciones adversas menos serias que aparecen con mayor frecuencia si se está tomando los comprimidos de RIBAVIRINA, son: **síntomas de gripe** (para lo que su médico le recomendará probablemente algún medicamento que lleve Paracetamol, (como Termalgin®, Efferalgan®…), diarrea, nauseas, **pérdida de apetito**, enrojecimiento e inflamación de la zona de inyección, caída del cabello reversible, picor de la piel, **insomnio**, cansancio.

***¿Cómo conservar el medicamento?***
Conservar en nevera (2-8ºC). No congelar.

***Precauciones:***
Es muy importante comunicar a su médico antes de empezar con PEGINTRON, las enfermedades que padece o que ha padecido, así como los medicamentos que toma.
Debe acudir a todas las revisiones que le programe su médico y realizarse todos los análisis que el considere para valorar si el tratamiento está dando buenos resultados y si hay que cambiar o no la dosis de PEGINTRON o de RIBAVIRINA. Debe cumplir el tratamiento tal y como se lo haya indicado su médico y durante el tiempo que el considere. Es la manera de obtener los mejores resultados.
Evite el embarazo y la lactancia desde que empiece el tratamiento y hasta cuando su médico se lo indique.